

Euskal Erria
 Salvador Espriu
 Itzultzailea: Juan San Martin.
 Egan, 1967

Bilduma izatera iritsi ez zen bildumakia

HILAREN hamarrean beteko zituen Salvador Espriuk ehun urte artean bizirik balego. Narratzailea, antzerkigilea, baina batez ere poeta, ere Kataluniako poeta nazionala. Ospakizunetan dugu aberri ttikia: Espriu urtea 2013.a, suziri-girlandak dira nagusi, idazleari, idazlearen obrari eginiko gorazarreak. Estaturik gabe baina nazio izanik jokatzearen abantailak.

Gurera, poeta izan da eskusiboki ekarria. Jose Antonio Loidik poema bat, 1965. Koldo Izagirrek eta Gerardo Markuleta gerora, garaikideago. Baina Juan San Martin izan da Espriu gehien euskaratu duena. Haren bi lan garrantzitsu, *Sinerako liburua* (66) eta *Zezen larrua* (83-86). San Martinek itzulitako beste lantxo batek, ordea, jartzen du makinaria guztia martxan.

Egan aldizkaria, 1967ko alea. Bertan, hiru poema: “Illargia”, “Karlos Ospetsuaren illobia”, “Aizea”, Espriuk idatziak –lehen-azkenaren tituluak orijinalan euskaraz–, San Martinek itzuliak. Dena hortxe geratuko zen, oso ondo, hiru poematxo, Espriuk hainbeste maite omen zuen Euskal Herriari eskeiniak, hartuko ez bazenitu 68ko obra osoak, aukeratu ez bazenu Poesia liburukia, irekiko ez bazenu *Zatikia*, *bertsetak*, *intentzioak*, *matizak* izeneko atalean. Hara, lau poema, País Basc epigrafepean: “Ilargi”, “La tomba de Carles el Noble”, “Aizea”, gehi 67-08-06ko data daraman “Biar”. Saksi-naski bat da atal hori, enkarguz idatziriko poema sortak dira gehienak, baina badira bildumakiak. Euskal Herriari itxuraz idatzi nahi izan zion bildumaren ernamuin horren gisakoak. Bilduma idatzi nahi zuela ez dago zehatz inon jasoa, baina gauza jakina da inork eskatu gabe idatzi zituela poemok. Logikatik badu: 58an adierazi zuen “kolektibitatearen zikloa” hasteko asmoa, poesia zibikoago bat, bertsoen diskurtsibita-



PAU BARCELÓ

tea, salaketa bokazioa, herriaren errealitate politikoa-
 ren presentzia identifikagarria. 60ko *La pell de brau*-k
 erakusten dizkigu ezaugarriak: transizio liburua
 dugu, Sinerako mitotik –aberri ttikia eta mundu gal-
 dua– Sepharadenera –iberiar penintsulari hala esaten
 zioten diasporako judutarrek–. Adituek diote: hasten
 da konbinatzen heriotzaren eta giza kondizioaren
 gaineko hausnarketa lirikoa, Espainia frankistaren
 gaineko kritika irmoarekin. Eta gero dago Euskal
 Herriarekiko Espriuren miresmena. Lehendakariari
 idatzi zion 83an: esku abil eta jakitunetan zegoela
 Euskadiren kausa gorena, bere sentitzen zuena.

Obra osoen ondorengo edizioetan, guztira
 sei dira Euskal Herriari eskeinitako poemak: aurre-
 koei gehitu behar dizkiegu “Gau” (69) eta
 “Abesti bioztun bat naiz” (70). Eta
 onena: antza, oraindik geratzen da ine-
 ditoren bat. ■

Aritz Galarraga

